



Aretxabaletako
Udala

Hitzarmena

Aretxabaletako Udala eta «TitularrarenIzenaOsoa» Elkartearen artekoa

Bildurik:

Alde batetik, jauna/andrea, NAN duena, adinez nagusia, «TitularrarenIzenaOsoa» Elkartearen izenean (IFK zkb:) eta ordezkartzan.

Eta bestetik, «NombreDeIAlcalde» jauna, NAN «AlkatearenNAN» duena, Aretxabaletako Udaleko Alkate- Lehendakaria, Udalaren izenean (IFK zkb: P2001400G) eta ordezk diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta zera

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 272016 Legearen 17. artikuluari jarraituz, Udalaren eskumena(k) da/dira:

-.....

-.....

-.....

BIGARRENA: Elkartek honako xedea du:

HIRUGARRENA: urtea (eko) hilabetea (a)ren eguna (e)an aurkeztutako idatziaren bidez, Elkartek zertarako dirulaguntza eskatu dio Aretxabaletako Udalari. Eskabidearekin batera diruz lagundu nahi diren jardueri buruzko memoria aurkeztu du.

LAUGARRENA: Elkartek ez dauka debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

BOSGARRENA: Aretxabaletako Udalak onartuta duen dirulaguntzen 2025-2027 eperako plan estrategikoan, besteak beste, honako hau jasotzen da:

Dirulaguntzaren izena

Xedea:

Udalak zer lortu nahi duen:

Norentzat:

Ematekoaren modalitatea. Izendun dirulaguntza zuzena.

Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa:

Hori guztia dela eta, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Alde bien arteko hitzarmen honen helburua da 2025. urtean Elkartek egiten duen lana diruz laguntzea zertarako.

BIGARRENA: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo geratzen da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA: Elkartearen betebeharrak.

..... Elkartek 2025. urtean zehar antolatuko dituen ekintza guztietan Aretxabaletako Udala babesle gisa azalduko da. Horrenbestez, argitaratzen dituen kartel, euskarri eta antzekoetan Udalaren logoa agertuko da, Udal honek diruz laguntzen duela adieraziz.

Dirulaguntzen kudeaketan Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartuko ditu, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaion informazio guztia emango du.

Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeelako.

..... Elkarteak jasoko duen dirulaguntza bakar bakarrik dirulaguntzaren xederako erabiliko du.

Dirulaguntza zurituko du, eta ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza itzuli beharko du.

LAUGARRENA: Aretxabaletako Udalaren betebeharrak.

Lehen alternatiba. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2025. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorriz, Elkarteari euroko dirulaguntza ematen zaio partidaren kontura. Dirulaguntza hau hitzarmena izenpetu ondoren emango da, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua dioena betez, Udalak datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta egingo die Elkarteak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkarteak ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

Bigarren alternatiba: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2025. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorriz, Elkarteari euroko dirulaguntza ematen zaio partidaren kontura, jarraian adierazitako moduan:

..... euroko zenbatekoa (kopurua jarri beharrean portzentajea jarri daiteke) hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da, ordainketa aurreratu gisa, betiere Udalak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.



Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua betez, Udalak datuen bitartekaritza- plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta egingo die Elkartek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, Elkartek ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.

..... euroko zenbatekoa (kopurua jarri beharrean portzentajea jarri daiteke)
(jarri noiz) ordainduko da, Elkartek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Diru laguntzaren azken ordainketa onuradunaren justifikazioa jaso ondoren egingo da, diru laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo ezarpena gauzatu izana egiaztatutakoan.

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekarquak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindiko eta nazioarteko administrazioetatik jasotako beste edozein laguntzarekin edo dirulaguntzarekin.

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke dagokion proportzioan.

ZAZPIGARRENA: Genero-berdintasuna.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzekoan, Elkarteak ezingo du hizkera sexistarik erabili dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereizita jasoko ditu.

..... Elkarteak ezingo du inolako dirulaguntzarik jaso honako kasuetan:

1. Bere xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistemak, funtzionamenduak, ibilbideak, jardunak, antolamenduak edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun- printzipioa urratzen badute.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatua izan bada, sexu-arrazoiak direla-eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratzeagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koake emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez baditu.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, emakume edo emakume-taldearen bereizkeria eragiten duten jarduerak, izan sexuagatik izan diskriminazio anitzeko faktoreengatik, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

ZORTZIGARRENA: Euskararen erabilera

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu — euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdín

jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da. Hori guztia, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan xedatutakoa betez.

BEDERATZIGARRENA: Jarraipena batzordea

Hitzarmenaren jarraipena egiteko alde bien artean osatutako jarraipen batzordea eratuko da eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzorde hau alde bietako edozeinek eskatzerakoan batzartuko da hitzarmena betetzeko egon daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

HAMARGARRENA: Dirulaguntzaren zuriketa.

..... Elkartek jasotako funtsen erabilera egokia zuritzeko konpromisoa hartzen du.

Zuriketa hori, nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan eta lege honen Erregelamenduaren 72. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, eta 2025eko abenduaren eguna baino lehen aurkeztu beharko da Aretxabaletako Udaletxean, erregistro elektronikoko bidez, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Jardueren azalpen memoriaz gain, egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- a) Jardueren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
- b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan sartuta daudenak, eta hala badagokio, horien ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.



Dena den, memoria ekonomikoaren ordezkariak Elkarrekin kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek egindako urteko kontu laburtuen auditoretza txostena aurkeztu ahal izango du.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da azken sinaduraren egunetik 2025eko abenduaren 31 arte. Berau aldatzeko alderdien aho bateko adostasuna beharko da.

HAMABIGARRENA: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa betetzeko, aplikatu daitezkeen guztian.

HAMAHIRUGARRENA: Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde biek aho bateko akordioa.
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoa gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

- d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaratzeko duen erabaki judiziala.



HAMALAU GARRENA: Jurisdikzioa.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMABOS GARRENA: Gardentasun ataria.

Hitzarmena Udalaren gardentasun atarian argitaratuko da.

Eta jasota gera dadin, adostasuna adierazteko, aldeek elektronikoki izenpetzen dute hitzarmen hau, eta azken izenpetzailearen data hartzen da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.